

Bilboko txabolismoa

XX. mendearen erdialdeko auzo

autogestionatuak

Ianire Castrillo
EHUko ikertzailea

50eko hamarkadan Bizkaiko industriaren berpiztearekin bat, migrazio-fluxu handia eratu zen Bilborako norabiderantz eta etxebizitza-eskasiaren auzia erabat larriagotu zen. Autoritateen aurreikuspen faltaren ondorioz, bez ezta oso bizkor masifikatu egin zen txabolismoaren fenomeno hiri-uruen inguruko mendi-magal gehienetan. Autoeraikuntzaren bidez eta legetik at altxatu ziren auzoak, non ekipamenduen gabezia eta bazterketa soziala nagusi ziren.

60ko hamarkadaren hasieran, arazoa konpontzeko lehen ekimenak jarri zituen abian estatu frankistak, Otxarkoagaren eraikuntza, kasu. Urteen joanean, auzo batzuk desagertu ziren. Alabaina, gaur arte biziraun dutenak ere baditugu, eraldaketa sakonak izan dituzten arren (Masustegi, Buia...).

As the vizcain industry started coming up in the 50es, housing for emigrants became a very serious problem. As a result, illegal self-built shanty towns appeared in most of the foothills around the city very fast and spontaneously. There wasn't any basic service and living conditions were really laborious.

The state took the first steps to eradicate it at the beginning of the 60 decade. The most important action was building Otxarkoaga. Nowadays most of these areas have disappeared, although some of them are still alive (Masustegi, Buia...).

Sarrera

Fenomeno ikusgarria dugu Bilboko txabolismoa, batez ere pairatu behar izan zuen jende kopuru altuagatik eta ekarritako ondorioengatik: bizi-baldintza oso latzak, hezkuntza- nahiz osasun-zerbitzuen izaera eskasa, jende-pilaketa ikusgarria, bazterketa soziala...

1960. urteko egunkari batek oso modu egokian azaltzen du dena:

Empujados por la necesidad levantaron sus hogares, auténticos cajones de no más en general de cuatro metros por dos y medio, en los que han vivido durante años matrimonios y en los que han nacido y han muerto hijos. Goteras, frío en invierno, calor asfixiante en verano. Volando por los aires en plena madrugada las cubiertas de las chabolas, cuando azotaba galerna¹.

Orain arte, nahiko berriki jazo izanagatik apika, ez da behar bezala aztertua izan. Izan ere, historialari gehienek ez dute zehazki jorratu eta gai zabalagoen baitan izan dute hizpide: auzo jakin baten historia egitean, Bilboren bilakaera urbanistikoa buruz aritzean, etxebizitza-politikaren inguruko lanetan...

Izan ere, industrializazio-prosezuaren hastapenetatik etxebizitza-eskasiak ekarritako arazoak agertzen hasi ziren hirian, lanpostu berrien bila zetozen kanpotarren pilaketaren ondorioz. Horrela eratu ziren XIX. mendearen bukaeraren eta XX.aren hasieraren artean Bilboko lehen aldiriak: Atxuri, Bilbo Zaharreko auzo garaiak, etab. Etxebizitza topatzea bertaratutakoen ardura nagusia izan ohi zen.

La magnitud del flujo migratorio y la incapacidad de las instituciones para contenerlo, y la contratación temporal provocaron la generalización de tres fenómenos característicos en el asentamiento de los inmigrantes: la patrona, el chabolismo y la vivienda compartida (Perez, 2001).

Erabat arrunta zen familia bat baino gehiago elkarrekin bizitza pisu berean eta azpierrean ematea. Kasu batzuetan, pisuak zeukan logela bakoitzeko familia bana egoten zen. Horrek suposatzen zituen higie-ne-egoera txarrei eta giza kalteari buruz asko idatzi izan da XIX. mendearen bukaeratik.

Patronari edo ugazaba andrearen figurari dagokionez, trantsizio-egoeretan erabiltzen zela esan beharra dago. Gela bat alokatzean zetzan —zenbaitetan baten batekin partekatuta—, jabeak zerbitzu batzuk eskaintzen zituelarik: bazkaria, arroparen garbiketa, etab. Orobat, hirira zetozen familiaburu bakartien artean zuen arrakasta. Behin egoera finkatzen zutenean, familia etortzen zen eta beste norabait lekualdatu behar izaten zuten.

Las fábricas les ofrecían trabajo y remuneración superior a la que podían obtener en las faenas del campo, pero no les resolvían los problemas extralaborales. En todas las grandes ciudades se acentuó el fenómeno del chabolismo, como un mal endémico de difícil solución. Chabolas construidas por sus propios habitantes en terrenos comunales con materiales de desecho, que con mucha frecuencia incluían un establo rudimentario donde ocultar algún animal que facilitara la alimentación. Todo, naturalmente, al margen de la ley, que sin embargo, no podía hacer nada para impedirlo (Urkijo, 1973).

1. 1960ko maiatzaren 22ko *La Gaceta del Norte*, 19.219. zk.

50eko hamarkadako bultzada industrial berriarekin areagotu egin zen immigrazio-fluxua eta orduantxe ugaritu ziren txabola-auzoak Bilbo inguratzen duten mendimagal gehienetan.

Tanto la documentación oficial, como la proveniente de distintos ámbitos constatan la gravedad del problema. Pese a haber sido permanente desde los primeros momentos de la industrialización, éste comenzó a desbordar las previsiones de las instituciones a partir de los 50 y se convirtió en una de las lacras de la época (Perez, 2001).

Olabuenagak eskainitako datuen arabera (Ruiz Olabuenaga, 2000), 40ko hamarkadan urtean 3.000 etorkin heltzen baziren ere, hurrengo hamarkadan 5.000 heldu ziren urte bakoitzeko. Besterik ikusi ez eta txaboletan bizitzea izan zen aukera bakarra helduberrientzat. Gauzak horrela, 50eko hamarkadaren bukaeran 30.000 txabola zeuden, Salazar-en aburuz (Salazar, 1979).

Como no había alojamiento, estos mismos [langileek] extendieron los poblados y las chabolas por los montes y extraradios de la capital, burlando la vigilancia de los municipales que hacen la vista gorda con un gran sentido humano de la realidad que les dignifica, ya que estaba prohibida esta especie de almacenamientos humanos en donde la mayor parte se construían de noche a toda prisa y en las cuales colaborábamos bastantes trabajadores con nuestro esfuerzo corporal y económico, ya que una vez que se terminaba el tejado, aunque este fuera de hojalata, no podían las autoridades el derribarlas (Perez, 2001).

Gizarte berriaren integrazioa hirian oso modu kaotikoan burutu zen. Hartara, periferiako ghettoak eratu eta zabaltzen joan ziren apurka-apurka: Peñascal, Masustegi, Cabras mendia... Horren ildotik, *tolerantziatzko hirigintzari* buruz mintzo da Jon Leonardo (Leonardo, 1989).

Egiraun eta del Vigo-k argitaratutako Errekaldeberriren gaineko lan batean, paraje haietan altxaturiko auzo "autogestionatuen" multzoari men egiten diote:

Casi repentinamente paso de ser un vergel a ser un caos superpoblado. Esto ocurrió durante los años del desarrollismo intenso de Bilbao y de Bizkaia. Peñascal, Gardeazabal, Iturrigorri, San Antonio, Uretamendi o Rekalde se superpoblaron (...) Recogieron a la inmigración que buscaba un puesto de trabajo en la Bizkaia del hierro, en la construcción o en los astilleros entre 1950 y 1960, sobre todo. Con todas las carencias imaginables (Egiraun eta del Vigo, 2001).

Hiru zio nagusi aipatzen ditu Olabuenagak txabolismoaren agerpena azaltzeko orduan: presio demografikoa, lurzorua espekulazioa eta instituzioen planifikaziorik eza. Bustillo-ren aburuz, beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan: gudaren ondorio ekonomikoak, guda bitartean eraiki ez izana, material-eskasia, alokairuen izoztearen eragin okerrak, etab.

60ko hamarkadan hasi zen arazoa konpontzen eta, besteak beste, Bizkaiko Larrialdi Sozialeko Plana martxan ipini izanaren ondorioz, pisu kopuru izugarria eraiki zen, tartean Otxarkoaga auzoa. Auzo horri buruz ere idatzi izan da:

En un plazo muy breve el equipo de arquitectos realizó los proyectos, apremiados por la necesidad urgente de viviendas con un presupuesto determinado. [Eran muchas viviendas] pequeñas y de escasa calidad, pero solucionaban el

problema planteado en este momento histórico. Con ello se consiguió alojar al mayor número de personas posible. Estas venían de chabolas, no estaban acostumbradas a grandes lujos, tenían ingresos muy bajos y no podían pagar un alquiler que no fuera mínimo. En aquella época no se pensaba que un día los residentes de Ocharcoaga pudieran unir a sus necesidades de mejor calidad de construcción y una mayor cantidad de espacio para sus viviendas (Urkijo Rentería, 1973).

Hurrengo urteetan eskari kaudimendunagoa eraikuntza sustatzen hasi eta etxebizitza-eskasiarekin amaitzen joan zen. Alabaina, ezin izan ziren desagerrarazi txabolismo-foku guztiak. Bustillo-k idatzitako artikulua batean Caritas-en informari bati egiten dio erreferentzia, zeinak 1965. urtean oraindik 15.000 pertsonatan zenbakitzen zuen hiriko txabola-auzoetako populazioa (Arregi, 1965). Mota horretarako eraikuntzen une gorena 50eko hamarkadan gertatu zen arren, gerora ere mantendu egin zen modu leunago batean, 80ko hamarkadaren hasiera arte bederen.

Auzune batzuek gaur arte biziraun dute. Adibiderik esanguratsuenak Masustegi auzoa dugu, gunerik handiena, baina baita Kobeta mendia edo Buia. Orotan izan dira eraldaketa ikaragarriak: etxeak handitu eta atondu dira, auzoaren azpiegitura osatzen joan da urteen poderioz, zerbitzuak ezartzen joan dira...

1. Txabolismoaren garapen-markoa

Bilbo inguratzen duten mendi-magalak etxola xumez bete izanaren atzean, hainbat zio ezkutatzen dira. Garai hartan aldi berean gertatu ziren zenbait faktoreren ondorioz izan zen posible txabolismoaren agerpena hain modu orokor eta bortitzean. Jarraian faktore haien azterketari ekingo diogu.

Aldaketa ekonomikoak eta presio demografikoa

1900. urterako garapen industrial aberatsa ezagutzen zuen Bilbok: meatzaritza, labe garaiak, ontziolak... Benetako hazkundera, ordea, Lehen Mundu Gerrarekin etorriko zen. Bigarren industria-iraultza deitu izan dena, alegia, industria kimikoa, elektrifikazioa, etab., etenda geratu zen Gerra Zibila hasi bezain laster. Zulotik ateratzeko urte batzuk igaro behar izan ziren, baina azkenik garapenaren motorra piztu egin zen berriro.

Estatuan, hainbat gune industrial sortu ziren eta haien artean Bilbo izan zen garrantzizkoenetako bat. Industriaren hazkunderarekin bat nekazaritzako ustategien mekanizazioa gertatu zen. Ondorioz, immigrazio-fluxu sendoa eratu zen bai Bilbo inguruko nekazaritza-eremuetatik bai urruneko probintzietatik (Andaluziatik, Gaztetatik, Galiziatik...) hiribururako norabidean.

Superada la crisis de los años treinta y cuarenta, la década de los cincuenta supuso para el País Vasco un período de desarrollo industrial y económico desconocido en España (...) La ciudad industrial comenzaba a expansionarse, superaba los límites previstos, se desbordaba en la creación de viviendas, en trazado de medios de transporte, y en participación de necesidades y soluciones que atender (Ruiz Olabuenaga, 2000).

Immigranteen kopuru handiak aurreikuspen ofizial oro gainditu zuen. 1950-1960ko hamarkadarako eskualdeko populazioaren % 20ko hazkundera aurreikusi

zen, eta % 41,68 hazi zen. Hurrengo hamarkadan, berriz, % 21,5eko hazkundea egongo zela uste bazen ere, % 42,2 hazi zen.

Ikus ditzagun datu batzuk:

Populazioa (biztanle kopurua):

| | 1900 | 1940 | 1950 | 1960 | 1970 |
|---------------------------|-------|--------|--------|--------|--------|
| Bilbo | 81956 | 196872 | 229334 | 297942 | 405908 |
| Bilbo Handia ¹ | 27956 | 306211 | 352657 | 505302 | 744711 |

Hazkunde-tasak (%-tan):

| | 1940-50 | 1950-60 | 1960-70 |
|--------------|---------|---------|---------|
| Bilbo | 116 | 130 | 136 |
| Bilbo Handia | 115 | 143 | 147 |

Iturria: Pérez Agote, 1978.

Soledad Urkijoren esanetan, 1959 eta 1964 artean populazio aktiboaren % 13 lekualdatu zen gunee industrialietara.

Espekulazioa

Bilbok produkzio-aparatuan jasandako aldaketek islapena izan zuten ekonomiaz kanpoko beste arlo ugarritan: kanpotarren etorrera, gizarte-aldaketak... eta, nola ez, hirigintza-aldaketak ere egon ziren. Hiriaren dimentsioak zabaltzeaz gain, espazioa modu berri batean antolatzeke beharra agertu zen.

El caso de Bilbao es un caso de urbanización con industrialización basada en la forma de producción capitalista (...). En nuestro caso, por tanto, industrialización significa tanto como destrucción de la ciudad, en razón de que con ella se inaugura un período de racionalidad espacial.

El proceso de industrialización, en relación al espacio urbano, genera caos y, por lo mismo, necesidad de planificación. La necesidad de planificación vienen determinada por dos factores sociales: necesidad de organización del espacio en función de la estructura económica, y la organización espacial en cierta manera impuesta por determinados grupos sociales que entran en conflicto por razón de la penuria creciente del medio urbano (Perez Agote, 1978).

Hartara, instituzioek hirigintza-eredu berria kudeatzen hasi behar izan zuten, eta bereziki etxebizitza faltaren arazoari heldu behar izan zioten. Kapitalismoaren garapenaren markoan, etxebizitza-politika industrializazio-politikaren menpe egon zen urte haietan guztietan. Ustarroz-en hitzetan:

La política de vivienda es el resultado de la cesión a la presión del chantaje que la iniciativa privada ha ido presentando a los organismos públicos implicados en el tema. Por esto nunca tuvo horizonte propio ni se abordó el problema de la vivienda desde sus propias dimensiones sociales y colectivas, quedando reducido a un problema puramente económico en el que ha jugado papel determinante el interés privado (Ustarroz, 1976).

Etxebizitza-eskaria asetzeko eginkizuna ekimen pribatuaren esku utzi izanak espekulazioarekin jarraitzea ahalbidetu zuen. Beraz, errentagarri zen kasuetan besterik ez zen inbertitzen, kasu, etxebizitza hobaridunekin gertatu bezala: irabaziak ziurtaturik zeuden, baina etxebizitza behar zuten familia apalenek ez zeukaten horrelakorik eskuratzeko inongo aukerarik. Estatuak berak uste zuen espekulazioa zela arazoaren arrazoi nagusietako batentzat:

Las laderas de los montes que circundan la villa de Bilbao se han visto invadidas por numerosas construcciones, que sin licencia municipal ni capacidad mínima de habitación ni elementales servicios sanitarios son un constante desafío a la moral, a la salud, a la belleza estética del paisaje y a la ordenación urbana de la capital de Vizcaya.

Ello demuestra, por un lado, la escasez de viviendas (...) y por otro la necesidad de controlar la inmigración anárquica de muchas familias.

Pero deja en evidencia, sobre todo, *la existencia de un ambiente especulativo* por parte de unas gentes que de manera más o menos consciente se dedican a negociar con la necesidad ajena, parcelando terrenos inadecuados a la construcción, levantando edificios carentes de las mínimas garantías higiénicas y atomizando espacios hasta dejar convertido el sagrado recinto del hogar donde la moral se forja, en el clásico tugurio escuela de los peores aprendizajes².

Etxebizitza-politika

Gerra Zibilaren gibeletik, etxegintzak etenaldi sakona jasan zuen: etxebizitza asko suntsitu zirelako; gudan zehar eta gerraosteko lehen urteetan ez zelako jarduerarik egon sektorean; material-eskasiarengaitik; baliabide finantzario urriak zi-rela eta, alokairuen izozteak eragindako etenagatik; hazkunde demografikoagatik...

Gerraosteko berrikuntzarik aipagarriena hiri handientzat onartu zen araudia dugu. Atzean geratu ziren planteamendu municipalistak, planifikazioari eskualdeko ikuspegi zabalagoa emanez. Hala, 1946an onartu zen Bilbo eta inguruetak Plan Komarkala eta Bilbo Handiko mankomunitatea eratu zen, arazo komunei aurre egiteko asmoz.

Eragin gutxi izan zuten, dena den: lehenengoa ez zelako 60ko hamarkada arte berriztu, eta beraz, ez zelako aurreikuspen onargarririk egin bere barruan³. Bigarrenak, aldiz, ez zuelako inoiz kalitatezko planifikazioa egiteko baliabide nahikorik izan.

1950. urteko etxebizitza-eroldari so eginez gero, bi gauza gelditzen dira agerian: batetik, etxebizitza bat eskuratzeko orduan errentaren banaketak zituen zuzeneko eraginak, alegia, 5-10 kideko 414.310 familia bat edo bi gelako etxeetan bizi ziren bitartean, 1-3 kideko 606.250 familiaren bizilekuek bost edo hamar gela zituzten. Bestetik, estatuko etxebizitzaren % 25 etxebizitza "osasunarentzat kaltegarri" kategorian sailkatzen zen. Etxebizitzaren arazoaren larriagotzea ikusita, 1952an Bilbon 5.000 etxebizitza zuzenean eraikitzea agindu zitzaion INVri.

2. 1958ko irailaren 18ko BOEn agertutako dekretua.

3. 1960an hasi ziren berrikusten, *Ministerio de la Vivienda* delakoak 1964. urtean onartu zuelarik "Plan general de Ordenación Urbana de Bilbao y su Comarca" izenpean. Eskualdearen gehiegizko hazkundera gelditzea du helburu, horretarako deskongestio-eremuak proiektatuz, ezagunena Asuako *Poblado Handia* izanik. Azpimarratzekoa da egitasmo honen ikuspuntu orokor eta zabala.

1954an legislazio berria sortu zen etxebizitza babestuen arloan. Ordutik *Obra Sindical del Hogar* delakoak izan zuen etxebizitza mota berriak eraikitzeko erantzukizuna. Figura berriak ziren Gizarte Laguntzako Etxebizitzak, Errenta Muga-tuko Etxebizitzak eta Errenta Minimoko Etxebizitzak⁴.

Etxebizitzaren Lehen Plan Nazionala 1955ean heldu zen. Horrek zenbait berri-kuntza suposatu zituen, hala nola 50 langile baino gehiagoko enpresak behartzen zituen lan-talde finkoko % 20rentzako etxebizitzak eraikitza, immigrazio gehien jasan zuten guneetarako etxebizitza-kupoak aurreikusten zituen (Bizkaiari 3.000 bat tokatu zitzaion)...

1956ko Lurzoruaren Legeak planifikazio arrazionalago bat sustatu nahi izan zuen, baina bitartekoetan motz geratu zen.

La falta de reglamentación que adolece la Ley De 1956 es uno de los más graves errores que hay que imputarle, pues, la imposibilidad de un serio control urbanístico que de ello se sigue distorsionando el concepto de planificación urbana, quedando reducido a una mera yuxtaposición de los usos del suelo directamente productores de rentabilidades privadas (Ustarroz, 1976).

Etxebizitzaren Ministerioa ez zen 1957. arte eratu. Urte horretan bertan Madri-leko Giza Larrialdiko Plana jaio zen txabolismoarekin amaitzeko, zeina gerora beste probintzia batzuetara hedatuko zen. Bizkaikoa egituratzen zen bitartean, 1958ko irailaren 5eko Dekretu batek Bizkaian 4.000 etxebizitza babestu eraikitzea agintzen zuen.

Dekretu horrek, bestalde, immigrazioa kontrolatzeko neurriak ezartzen zituen bigarren artikuluan, hala nola Bizkaira zetozenek bizitzeko bitarteko nahikoa zutela demostratu beharra zuten (lana, etxebizitza...); enpresek lan-kontratuak hitzartu aurretik baldintza horiek betetzen zirela ziurtatu behar zuten, edo bestela langile berrientzako pisuak eraikitzeko konpromisoa hartu behar zuten; eta azkenik, autoritateek baldintzak betetzen ez zituzten langileak jatorrizko herrietara itzultzeko eskumena zutela zioen dekretuak.

Dekretu horrek, orobat, espekulazioa zigortzeko neurriak hartzen zituen, eran-tzunkizuna Gobernadore Zibilaren esku utziz.

Art.3. Se consideraran faltas graves contra la Ordenación Urbana de Bilbao y su zona de influencia la realización sin licencia oficial del organismo que proceda los actos siguientes: parcelación de terrenos, construcción de edificaciones, venta o arrendamiento de los locales resultantes y la habitación de esa clase de edificaciones.

Serán responsables de estos actos los propietarios de los terrenos, los constructores, los moradores y los que de cualquier otra manera negocien con esas actividades⁵.

Bukatzeko, azken artikuluan etxebizitzak eraiki ahala txabolak eraisteko agindua eman zen.

4. Jatorrian dira: "Viviendas de Tipo Social", "Viviendas de Renta Limitada" eta "Viviendas de Renta Mínima", hurrenez hurren.

5. 1958ko irailaren 18ko BOEn agertutako dekretua.

Bizkaiko Giza Larrialdiko Plana 1959ko maiatzaren 25eko Dekretuaren bidez onartu zen azkenean, *Ministerio de la Vivienda* delakoak 5 urteren buruan 50.000 etxebizitza eraikitzeko asmoarekin. Bizkaia osoan garatu beharreko egitasmoa zen, eta aurretik eraikitakoak edo aurrerantzean xedapen hauen barne eraikitzen zirenak deskontatu behar ziren: alokairu mugatuko etxebizitzak, nahitaez eraiki behar ziren enpresen etxebizitzak, etxebizitza babestuak, etab.

Plana aurrera ateratzeko batzorde berezi bat eratu zen, Etxebizitza ministroak, Gobernadore Zibilak, Diputazioko lehendakariak eta Bilboko alkateak osatutakoa. Haien eginkizuna eraikuntza-planen norabidea markatzea eta planak onartzea zen. Baita 1958ko irailaren 5eko Dekretuan agertzen ziren bestelako funtzioak betetzea ere, kasu: espekulazioa ekidin eta zigortzea, baimenik gabe eraikitako etxebizitzak eraistea, immigrazioa arautu eta kontrolatzea...

Ambos planes tenían una cosa en común, las cifras que manejaban eran en ambos casos y en palabras del entonces recién nombrado ministro Arrese, el número aproximado de chabolas, realquilados y casas ruinosas que se habían registrado (...) y que en el caso de Bizkaia se concentraban prácticamente en el Gran Bilbao⁶.

Hortik abiatu zen Otxarkoaga egiteko egitasmoa. Franco-k Bilbora egindako bisita batean proiektua egiteko agindua eman zuelako ustea oso zabaldua dago, bai Otxarkoagako biztanleen artean, baita orduan Bilbon bizi zen beste jende askoren artean ere. Soledad Urkijok hala jaso zuen:

La construcción de Ocharcoaga tuvo su origen en una visita que el Jefe de Estado realizó a Bilbao. Durante ella vió algunas de las chabolas que rodeaban el centro urbano y ordenó la inmediata construcción de un poblado que absorbiera por lo menos el número de viviendas contabilizadas en chabolas y que afeaban las partes más visibles de la ciudad (Urkijo Rentería, 1973).

3.675 etxebizitzaz osatutako auzo satelite bat izan zen, *Instituto Nacional de la Vivienda* delakoak *Organización de Poblados Dirigidos* izenekoaren bitartez altxatu zituenak hiriburuan. Otxarkoagako lurak desjabetu, eraikuntza-lanei ekin eta 1961eko uztaileko dekretu baten bidez, Bilboko Udalaren esku utzi zuten "herrigunea", alokairuan jar zitzen pisuak.

Udalak txabola-auzoetan bizi zen jendea bertara eramatea erabaki zuen eta auzook eraistea. Horretarako "Derribo-Chabolas" izeneko operazioa ipini zuen abian. Otxarkoagan, baina, 18.000 pertsona besterik ez ziren sartzen, eta txabolistak askoz gehiago ziren.

Izan ere, Bizkaiari egotzitako etxebizitza-kupoak ez ziren inoiz nahikoak izan barne-eskaria asetzeko 50eko hamarkadan zehar, ez Estatuak INVren bidez eraikitakoak, ez Diputazioak *Viviendas de Bizkaia* delakoaren sustatzaile gisa, ez Udalak *Junta de Viviendas* izeneko erakundearekin egindakoak, eta txabolismoaren, berralokairuen eta logela konpartituen zulo beltza ez zen 60ko hamarkada arte atzean lagako.

6. Bustillo, 2004: Madrilgo nahiz Bilboko Giza Larrialdiko planei men eginez.

2. Txabolen ezaugarri orokorrak

2.1. Fenomenoaren espontaneotasuna eta kontrolatzeko ezintasuna

Oso arin sortu zen fenomenoa dugu esku artean, oso urte gutxitan eratu zena, pixkanaka-pixkanaka baina etenik gabe. Izan ere, aurrekari isolatu gutxi batzuk egonik ere, 50eko hamarkada izan zen txabolismoa izugarri hedatu eta orokortu egin zen unea, Espainiar Estatuko nekazari-eremuetatik puri-purian zeuden hiri industrialetara biztanleriaren etorrera gertatu zenean.

Bizkaiko hiriburuan etxebizitzaren eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka nozitzen hasi zen orduan. Klase behartsuenak (hein handi batean emigranteek osatuak) ez zeukan etxebitza edo alokairu bati aurre egiteko baliabide nahikorik eta ostatu hartzeko edonolako bizitegien bila hasi zen. Ondorioz, aipatu auzoak eratzen hasi ziren.


Gauetik egunera agertzen ziren txabola berriak, tai gabe. Modu kontrolaezin eta anarkikoan okupatu ziren lurak. Kasu batzuetan lurzorua inbaditu egiten zen beste norbaiten jabetzan sartuz. Beste batzuetan, zenbait formula erabiltzen ziren: lurzorua jabeari partzela erostea, lursailen birzatatze-kasuak...

Hasierako urteetan erdialdeko zenbait gunetan txabolismoa garatu zen arren —Basurtu aldean, kasu—, denboraren poderioz hiri-egituraren periferian kokatzen joan ziren auzo gehienak. Bertan zeuden auzo nagusi eta populatuena. Olabuenaga hiriko *miseria-gerrikoari* buruz mintzatzen da auzo haiei erreferentzia egitean (Ruiz Olabuenaga, 2000). Izan ere, Bilbo inguratzen zuten mendi-magal orotan sortu zen nukleo txiki-handiren bat, gunee malkartsuak zirelarik batik bat.

San Ignazio gaineko mendateetatik hasita eta Zurbaran arte, auzunez josita zeuden Artxandako magalak: Cabras eta Banderas (Elorriaga) mendiak, Berriz, Ugasko, Lezamako Trenbide Zaharra... Horiek eta Sagarmingaga nahiz Atxuriko Ponton pasealekuko txabola-auzoak osatzen zuten Nerbioi-Ibaizabal ibaiaz iparraldeko txabolismoa.

Hegoaldeakoari dagokionez, Arraitz mendiko magaletan kokaturikoak ziren auzo nagusiak: Kobeta, Masustegi eta Monte Caramelo (Mintegitxueta) alde batetik, eta Errekaldeberriko nukleoak bestetik: Uretamendi, Peñascal, Iturrigorri... Mendebalderago Larraskitu zegoen, eta are mendebalderago Irusta eta Buia, Abusu gainean.

Bestalde, hiri barneko zenbait tokitan ere horrelako gunek sortu ziren: Ingelesen zelaian (egungo Abandoibarra), Basurtuko hainbat puntutan, etab. Ikus dezagun beraien banaketa hurrengo mapan:



Otamendi, J.J eta Perez de la Peña, G. Hirigintzaren kartografia Bizkaian (1857-1956), Bizkaiko Foru Aldundia, 1999, Bilbo.

AUZOEN ZERRENDA*

- 1 Cabras mendia
- 2 Elorriaga mendia
- 3 Miramar
- 4 Berrizeko igoera
- 5 Buenavista
- 6 Ugasko
- 7 Haizeola bidea
- 8 Lezamako Trenbide Zaharra
- 9 Artxandako magala
- 10 Otxarkoagako bidea (auzoa eraiki gabe dago oraindik)
- 11 Kañu pasealekua
- 12 Sagarmingana
- 13 Kastrexana
- 14 San Ignazio
- 15 Kobeta
- 16 Masustegi
- 17 Caramelo mendia/Mintegitueta
- 18 Betolaza
- 19 Uretamendi
- 20 Arnotxako bidea
- 21 Iturrigorri
- 22 Peñasca
- 23 San Antonio
- 24 Larraskitu
- 25 Irusta
- 26 Buia
- 27 Kaputxinoen kalea
- 28 Olabeaga
- 29 Luis Briñas kalea
- 30 Orduko *Generalisimoaren etorbidea*
- 31 Ingelesen zelaia/Abandoibarra
- 32 Torreurizar

*Ez daude denak.

Aipatzekoa da nukleo independenteak zirela eta auzuneen artean ez zegoela inongo harreman-sare artikulaturik, soilik oso gertu zeuden guneen artean, esate baterako Masustegi, Kobeta eta Mintegitueta auzuneen artean.



Egiraun, J. eta del Vigo, J.: *Rekaldeberri en imágenes... Uretamendi.*

2.2. Legalitate urbanistikotik at daude

Auzuneak ilegalak ziren bi ikuspegitik: lursaila erosten zen kasuetan etxeak ez ziren lur eraikigarrian eraikitzen, eta lursaila inbaditzen zen kasuetan ez zuten lurraren jabetza-erregimena errespetatzen (ez lursail pribatuei dagokienez, ez jabetza publikokoei dagokienez ere).

Lehenengo puntuari dagokionez, aipatu beharra dago Bilboko Udalaren 1954ko Plan Komarkalaren arabera “Parke Gune”, “Jarraiki Libre”, eta antzeko kalifikazioen barruan sartzen direla auzo hauek kokatuta dauden eremuak. Hortaz, ez dira lur eraikigarriak (salbuespenak salbuespen) eta bertan ezin da urbanizatu. Txabolak, beraz, inongo lizentziarik gabe altxatzen ziren.



Egiraun, J. eta del Vigo, J.: *Rekaldeberri en imágenes... Uretamendi.*

Autoritateek jokabide desberdinak izan zituzten unean-unean. Lehenengo urteetan ez zuten inolako neurririk hartu fenomenoaren garapena oztopatzeko. Txabolismoa masifikatzen hasi ahala, galarazteko ahaleginak abiatu zituzten. Txabolismoa ikertzeko batzar bat eratu zen, udaleko zein *Mugimenduko* beste

erakunde ofizialetako kideekin eta enpresen ordezkariekin. Horren ildotik, 1955eko urtarrilaren 12an udalbatzak txabolismoa galarazi eta zigortzeko dekretu bat onartu zuen.

En orden a la solución del problema (...) se acuerda que a partir de esta fecha no se tolerará ninguna construcción que no cuente con la necesaria licencia municipal, procediéndose, sin más trámites, al inmediato derribo de las edificaciones que no se ajusten a las Ordenanzas Municipales, sin perjuicio de la sanción que en cada caso proceda y bien entendido que este acuerdo no supone la legalización de las actuales construcciones antireglamentarias, en relación a las cuales el Exmo. Ayuntamiento se reserva el derecho de proceder contra ellas⁷.

Akordioak ez zuten suposatzen ordura arte altxaturiko eraikuntzen legalizazioa, udalak haiekin nahi bezala jarduteko eskumena zuela gogoratzen zuen. Alkatetzatik publizitate handia eman zioten ebazpen horri, txabolismoaren hedapena etengo zutelakoan.

Udaltzaingoaren gain lagatzen zuen legez kanpoko obrak ahalik eta denboratarte laburrenean salatzeke eginkizuna. Gerora Arkitektura Sailak erabaki behar zuen zer-nolako erantzuna eman eta horretarako tramiteak abiatu.

Dekretua onartu eta ondorengo hilabeteetan, zorrozki jardun zuten udaleko langileek txabolisten kontra. Hala isladatzen du behintzat dokumentazio ofizialak, non salaketa eta eraispen zenbait agertzen diren hiriko toki batzuetan: Aluzetako bidean, Elorriaga mendian, Lezamako Trenbide Zaharrean... Sarritan, zaila suertatu zen etxolak botatzea jabeen zein inguruko auzokideen erresistentzia zela eta.

Esaterako, 1955eko ekainaren 11n Iturrigorri auzoan hamaika txabola suntsitu zituzten udalak bidalitako langileek eta «*se insolentaron por ello unos propietarios del Peñascal, quienes trataron por medios agresivos y violentos de impedir la ingrata labor, estando a punto de ser agredidos*». Horren aurrean, udaltzaingoak esku hartu zuen, «*hubo que ser violento y contundente*»⁸.

Hilabeteak pasatu ahala, politika zorrotz hau leundu egin zen hein batean. Elkarrizketatu gehien esanetan, instituzioek etxebizitzaren arazoaren dimentsioak ezagututa ez ikusiarena egiten zuten askotan txabolak eraikitzen lagaz. Horren froga, 1955eko maiatzean Sustapen Sailak plazaratutako kexa⁹ dugu, non eskatzen zaien Alkatetzari, udaltzaingoari eta Arkitektura Sailari deia ematea.

Txabolismoarekin amaitzeko egitasmoak gauzatzen joan ahala (enpresek beren langileentzako etxebizitza kopuru bat eraikitzea, Otxarkoagako *poblado* edo auzunea...), desagertuz joan zen pixkanaka-pixkanaka. Alabaina, ez zen erabat desagertu eta erne egon behar izan zuten denbora luzez. 70eko hamarkadan, kasu, udalak Etxebizitza Ministerioaren Ordezkaritza Probintzalarari diru-laguntza ematen jarraitu zuen fenomenoaren gaineko kontrola mantentzean.

7. "Circular del Gobierno Civil de Vizcaya por la que comunica la necesidad de exigir el cumplimiento de las Ordenanzas Municipales en materia de construcción" izeneko udal-espedita batean. Erref.: C-001413/004.


8. *Op. cit.*

9. *Op. cit.*

3. Autoeraikuntza

Aztertzen ari garen etxolak euren jabeek beren kabuz eraikitakoak dira. Eredu homogeneorik gabeko arkitektura zen horren emaitza eta tipologia eta tamaina desberdineko txabolak aurki zitezkeen. Arruntenak 30 m² inguruko solairu bakarreko bi geladun etxeak izaten ziren, lehia pare bat zeukatenak eta bata bestearen alboan kokatzen zirenak, espazio txiki bat lagata tartean. Oso altzari gutxi izan ohi zituzten, oinarritzkoak besterik ez: ohea, txapa...

Horrelakoa zen oinplanorik arruntena:



Alabaina, bazeuden blokean eraikitako bizitokiak ere, alegia, sendi bat baino gehiago sartzeko banatzen ziren pabiloi luzeak. Etxebizitez gain, eliza edo eskolaren funtzioa betetzen zuten bestelako eraikinak ere bazeuden, oro har, gainerrako etxeak baino zerbaitek handiagoak izaten zirenak.

Dena den, desberdintasun horiek denborak apaldu egin zituen, zeren egoera ekonomikoa hobetu ahala inbertsioak egiten baitzituen nork bere etxean eta kalitatea nahiz kantitatea nabarmen hobetsi ziren: material hobeak ipini, berrikuntzak egin, gelak gehitu... Bi gelako etxola tipia bi alde eta hiru solairuko bloke bihur zitekeen urteekin.

Eraikuntzarako ondoko bizilagunen laguntza behar izaten zen, txabolak altxatzea galarazita zegoenez gauez eta oso azkar egiten baitziren obrak —oinarritzko egiturak bederen—. Era horretan, udaltzainek errespetatu egiten zuten etxola, izan ere, etxe batek teilatua izanez gero, botaezina zela suposatzen zen¹⁰.

Jende ugari egoera ekonomikoa hobetutakoan, pisuren batera egiten zuten hanka. Hori bai, maiz txabola mantentzen zuten bai alokairuan paratzeko, bai biltegi gisa erabiltzeko...

4. Ekipamendu-gabezia

Auzo hauek ezerezetik jaiotzen ziren, langile xumeen eskutik. Hortaz, ez zuten dotazio eta espazio publiko egokirik: ez urrik, ez argirik, ez kalerik, ez komunik, ez erreperiderik... Eta noski, ez zerbitzurik, ez eskolarik, ez kultur gunerik, ez farmaziarik...

10. Beste bitxikeria bat: Masustegiko apaizak kontatzen duenez, eraikin bat egiteko orduan udaltzainak gerturatuz gero, estrategia sinplea jartzen zen martxan auzoan: eraikitzen ari zen etxetik urrun zalaparta itzela sortzen zen udaltzainen arreta desbideratzeko: borrokak, eztabaidak... gehienetan komisaldegian amaitzen ziren. Hartara, iskanbilak irau bitartean etxola bukatu egiten zen.

Denbora pasatu ahala, auzokideek gabezia horiek gainditzeko erabakia hartu eta auzolanaren bitartez hainbat ekipamendu eraiki zituzten. Auzokideen arteko elkartasun handia eta bizilekua hobesteko desira azpimarratzen dituzte bertan bizi izandako pertsona guztiek.

Antolatzeko moduak aldatu egiten ziren tokian-tokian. Masustegin eliza eta apaizaren inguruan sortzen ziren ekimen gehienak; Ugaskon, Auzo Batzar bat existitzen zen, non gizonezko bizilagun denek hartzen zuten parte. Lehendakari bat eta bost bokal aukeratzen zituzten eta horiek osatzen zuten zuzendaritza, nahiz eta erabakiak batzarrean hartzen zituzten: zer egin behar zen, nola, dirua bildu eta kudeatzeaz arduratzen zen, etab.

Toki gehienetan sartu zen lehendabiziko gauza argindarra izan zen, lehen urteetatik present egon zena. Uraren kanalizazioa, ordea, geroagokoa izan zen, 70eko hamarkada arte ez baitzen gauzatu. Inguruko iturrietara joan behar izaten zuten edateko ur bila, baita garbiketarak egiteko ere. Komunak oso gauza berria dira txabola-auzo izandakoetan eta 80ko hamarkadatik aurrera agertu ziren. Bideak eta beste irispideak (eskailerak, barandak...), eskola, eliza... dena izan zen auzolanaren bidez eraikia.

5. Bizi-baldintza latzak eta bazterketa soziala

– La gente era pobre, ¡era pobre! No era la clase obrera, era pobre. Por eso no se metían en un piso, por eso no comían mejor...¹¹

– No había nada, ni ropa de abrigo. Cuando sacaba al niño a la calle para ir a algún sitio solo tenía una manta chica: si le tapaba la cabeza le descubría los pies... Yo iba cargada, cargada...¹²



**Egiraun, J. eta del Vigo, J.: *Rekaldeberri en imágenes...*
Uretamendiko txabola bat barrutik.**

Bi familia txabola berean sartuta, bost kide ohe berean lo egiten, txandak bazkaltzeko, txandak lo egiteko, komunik ez, hezetasuna, hotza, elikadura kaxkarra... Honelako bizimodua zuten txabolistek. Oso bizi-baldintza prekarioetan bizi omen ziren, pobrezia bete-betean.

11. Txema Agirre Kobeta mendiko auzoko bizilagun ohiaren testigantza.

12. Maria Rabanal Ugaskon bizi izandakoaren testigantza.

Pilaketa handia gertatzen zen sarritan, bai familiakide berriak zeudelako (batez beste bost kideko familiak izaten ziren, baina batzuetan zazpi, zortzi edo gehiagokoak ere) bai txabola konpartitzen zelako, bi nahiz hiru sendiren artean. «Las camas no tenían tiempo de enfriarse» dio Jose Martinez Masustegiko apaizak horren harira.

Elikagaiak eskuratzeko laguntza gisa, sendi gehienek bazeukaten orturen bat inguruko lurretan, eta zenbait kasutan animaliak ere: untxiak, oiloak... Cáritas eta beste ongintza-erakunde batzuk maiz gerturaten ziren toki haietara elikagaiak banatzera: esne-hautsa, azukre-poltsak...

Txirotutako hainbat bilbotar auzo hauetan bizi ziren arren, gehiengo zabala etorkinek osatzen zuten. Oro har, lehenengo familiaburua izaten zen emigratzen zuena, ezagunen baten kontaktuaren bidez eta gerora familia etortzen zen. Buruzat emakumezko bat zuten familien kopuru handia azpimarratu beharreko kontua dugu; izan ere, pobreziak gogorren jotzen zuen sektoreetako bat osatzen baitzuten ezkongabeko emakumeek, banatutakoek, alargunek...

Hasierako populazioaren ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalen antzekotasunak, ilegalitate-sentsazioa eta segurtasunik ezak, izaera emigranteak, azpi-ekipamenduak, etab. gune hauen ghetto-izaera areagotu egin zuten.

3. Auzoen bilakera historikoa

Industrializazioaren hastapenetatik existitu arren, 50eko hamarkadak aurrera egin ahala, masifikatu eta larriagotu zen txabolismoaren gertakaria. Gero eta erritmo handiagoan hazten zenez gero, irtenbide bat bilatzen saiatu ziren autoritate desberdinak. Lehen, ekimen pribatuaren esku utzi zela esan dugun arren, arlo publikotik ere ahalegin batzuk bideratu zituzten txabolismoa desagerrarazteko asmoz.

Arrakastatsuen, dudarik gabe, *Plan de Urgencia Social para Vizcaya* (PUSV) delakoa izan zen, zeinak babes ofizialeko 4.000 etxebizitza aurreikusten zituen Bilbon. Hari esker, txabolista askok pisu bat eskuratu zuten eta txabola-auzo asko desagertu ziren. Beste asko, aitzitik, denbora-tarte luzeagoz bizi izan ziren, eta batzuk gaur egun arte.

Jarraian, txabolismo-foku garrantzitsuenen datuak biltzen dituen taula ikus daiteke.

| | 1. txab. | 1955eko | | erralda | | 1961eko erralda | | Berezitasunak | Desagerpena |
|-----------------------------------|----------|---------|-------|--------------------------------|-------------------|----------------------------|--|---------------------|-------------|
| | | Txab. | Bizt. | Jatorri nagusiak | Material nagusiak | Sendi kop. | | | |
| CABRAS MENDIA/ ENEKURI | 1952 | 28 | 127 | A Coruña | Adreilua, zura | 370 (auzoriak handiena) | - | Otxarkoagarekin bat | |
| ELORRIAGA MENDIA | 1953 | 27 | 158 | Galizia eta Gaztela | Adreilua | 286 | Kalitate oneko etxeak zirenez, Otxarkoagara lekualdaketa egin zenean, instituzioak beldur ziren istiluak egon zitezkeelako. | Otxarkoagarekin bat | |
| DEUSTU GAINEKOAK | | | | | | | | | |
| MIRAMAR | 1953 | 4 | 12 | Gaztela | Zura | - | - | Otxarkoagarekin bat | |
| UGASKOKO BIDEA | 1945 | 1 | 13 | Bilbo | Zura | 11 | Barraiko handi bat zen, non sendi guztiak pilaturik bizi ziren. | Otxarkoagarekin bat | |
| UGASKO | 1956tik | 0 | 0 | - | - | 247 | Eraketaren bat-batekotasuna. | Otxarkoagarekin bat | |
| BUENA VISTA | 1945 | 21 | 63 | Gaztela-Leon Andaluzia | Adreilua | - | - | Otxarkoagarekin bat | |
| BERRIZEKO IGOERA | 1950 | 8 | 37 | Galizia Bilbo ingurukoak | | 108 | - | Otxarkoagarekin bat | |
| ARTXANDAKO MAGALA | | | | | | | | | |
| HARROBIA | 1954 | 18 | 68 | Galizia | Harria | 303 | - | Otxarkoagarekin bat | |
| MAGALA | 1945 | 13 | 54 | Bilbo ingurukoak | Adreilua | 164 | Lehen txabola salbuespenzat hartu behar da, auzoa 1954an egituratzen da eta. | Otxarkoagarekin bat | |

| | | | | | | | | |
|---------------------------------|------|----|-----|------------------------------|-------------------------------|-----|---|--|
| DOCE AMIGOS AUZUNEA | 1952 | 6 | 23 | Denetarik | Zura | - | - | Otxarkoagarekin bat |
| HAIZEOLA BIDEA | 1948 | 5 | 20 | Bizkaia Kantabria Burgos | Adreilua | - | | Otxarkoagarekin bat |
| LEZAMAKO TRENBIDE ZAHARRA | 1941 | 36 | 165 | Bilbo/ Gaztela | Zura | 79 | Lehen txabola salbuespena izan zen, 1951tik aurrera hedatu zen eta. | Otxarkoagarekin bat |
| LORURI | 1944 | 8 | 41 | Bizkaia Gaztela | Adreilua | 158 | - | Otxarkoagarekin bat |
| OTXARKOAGAKO BIDEA | 1941 | 9 | 40 | Kantabria Bilbo | Adreilua | - | - | - |
| LOS CAÑOS | 1946 | 70 | 306 | Galizia Kantabria | Zura. Oso kaxkarak, orohar | 96 | -Batez ere, 1953-54an hazi zen. -Ijito kopuru handia, maiz bidaiatu eta txabola uzten zutenak -Egoera higieniko-sanitario okerrera. | Otxarkoagarekin bat txabola gehienak desagertu ziren, baina noizean behin berriro ere eraiki ziren beste batzuk. |
| INGELOSEN ZELAIA | 1940 | 47 | 189 | Bilbo ingurukoak Gaztela | Adreilua | 67 | Etxola goiztiarrenen jabeak bizkaitarrak ziren. | Otxarkoagarekin bat |
| BASURTU | | | | | | | | |
| JOSE ANTONIO ETORBIDEKO ZUBIPEA | 1945 | 27 | 129 | Bilbo ingurukoak | Zura | - | Bazeuden ijitoak. | Otxarkoagarekin bat |
| LUIS BRINÁS KALEA | 1948 | 39 | 119 | Bertoko asko | Zura | 65 | - | Otxarkoagarekin bat |
| GELTOKIA | 1953 | 4 | 18 | Burgos Kantabria Artzentales | Adreilua, zura | - | - | Otxarkoagarekin bat |
| KAPUTXINOEN KALEA | 1952 | 8 | 39 | Galizia Bilbo ingurukoa | Zura | - | - | Otxarkoagarekin bat |

| | | | | | | | | |
|--------------------------------------|-----------------------------|----|-----|---------------------|-------------------|--------------|--|---|
| IRUSTA | 50eko hamarkadaren bukaeran | - | - | - | - | 150etik gora | 150 sendi Otxarkoagara joan baziren ere, baimena zeukatzen hainbat etxola mantendu ziren, gure egunera heldu direnak. | Otxarkoagarekin bat: "Derribo-Chabolás" operazioko II. fasean, baimena zuten 14 etxola mantenduz. |
| ALTAMIRA INGURUKO AUZOAK | | | | | | | | |
| MASUSTEGI | 1943 | 30 | 127 | Galizia | Adreilua | - | 40ko hamarkadatik, gero eta erritimo biziagoan hazi zen 1960. arte. 4.000 biztanle izatera heldu zen. Egun zutik dirau, erabat itxuraldatuta. | |
| MINTEGIXUETA AUZUNEA | 1946 | 13 | 57 | Bilbo | Adreilua | - | Oso paper garrantzitsua jokatu du Jose Martinez "El Gallego" auzoko apaizak. | |
| KOBETA | 1937 | 15 | 63 | Bilbo Gaztela | Adreilua | - | 1. txabola salbuespena da, auzoa 1954an egituratu baitzen. Historikoki hertsiki lotua egon da Masustegi auzora eta gaur arte biziraun du ere. | |
| SAN IGNAZIO | 1949 | 11 | 46 | Kantabria | Adreilua | - | Azpimukleotetan banaturik dago: Kobetako bideko auzoa, Kobeta mendikoa, gaztelua, gotorlekua eta Arisitxabala. | |
| ERREKALDEBERRI GAINEKO AUZOAK | | | | | | | | |
| BETOLAZA | 1953 | - | - | - | - | - | 1953an lursailak zaitu eta saldu egin ziren, auzoaren egituraketari ekinez. 1956an 72 txabola eta 300 biztanle inguru zeuden jada. | |
| SAN ANTONIO | 1945 | 10 | 43 | Santander Burgos | Haria Adreilua | - | Denboraren poderioz, populazioaren zati handi batek alde egin zuen auzotik, eta etxola gehienak bestelako funtzioak betetzen hasi ziren: bitlegiak, garajeak... apurka desagertzeko. | |
| ITURRIGORRI eta GARDEAZABAL | - | - | - | - | - | - | Auzo gisa, 50eko hamarkadan hasi zen eratzen, jabeak lurrak salmentan jartzean. 1960rako 70 bat txabola zeuden, 92 sendi eta 400 biztanle inguru. 1962an 136 sendi eta 550 biztanle ziren. | |
| PENASCAL | 1949 | 24 | 105 | Gaztela | Adreilua | - | 1983ko uholdeez gerotzik, auzoa gainbeheran sartu zen, oso egoera kaxkarrean geratu baitzen. | |
| ARMOTXAKO BIDEA | 1951 | 1 | 5 | Burgos | Adreilua | - | Biztanle batzuek Otxarkoagan pisua jaso zuten eta txabola laga, baina beste askok auzoetan jarraitu zuten. | |

| | | | | | | | |
|----------------------|------|----|-----|--|----------|---|---|
| ENTRAMBASAGUAS | 1947 | 11 | 42 | Bilbo Gaztela | Adreilua | - | - |
| URETAMENDI | 1948 | 99 | 490 | Gaztela Extremadura | Zura | - | Bertako biztanleek, PUSVren ¹³ baitan estatuak emandako diru-laguntzaz baliaturik, kooperatiba bat eratu eta euren pisuak altxatu zituzten. |
| TORREURIZAR | 1938 | 26 | 111 | Gaztela Bilbo eta inguria Kantabria | Adreilua | - | - |
| LARRASKITU GOIKOA | 1947 | 12 | 52 | Gaztela Bilbo | Adreilua | - | - |
| SAGARMINAGA | 1915 | 9 | 38 | Bilbo Gaztela | Zura | - | 1. txabola salbu, 50eko hamarkadan. |
| BUIA | 1957 | - | - | - | - | - | 1957an hasi ziren txabolak agertzen, jabeak lursailak zatikatu eta saldu zituenean. 1958ko otsailaren 28ko dekretu baten bidez, luraren jabeari baldintza batzuen barruan etxolak eraiki eta salmantan jartzea baimendu zitzaion, ondorioz ezaugarri homogeneodun etxola lerro batzuk daude. Azken etxeak 1960an altxatu baziren ere, populazio-dentsitate altuena 1966-67an izan zen, etxe bakoitzeko familia bat baino gehiago egonik. Bertakoen esanetan, 800 biztanle izatera heldu zen auzoa. |

GUZTIRA

640 2800

2505¹⁴

13. Plan de Urgencia Social de Vizcaya edo Bizkaiko Larrialdi Sozialerako Planak aurreikusi bezala, babes-ofizialeko 4.000 etxe eraiki ziren Bilbon. Horietatik 3.765 Otxarkoagan eta gainerakoak, prozedura desberdin baten bidez, Uretamendin.

14. Aipaturiko auzoez gain, Ollarganeko 200 bat sendi sartzen dira kopuru honetan. Izan ere, Arrigorriagako eskumenean egon arren, bertako familia batzuk bidali zituen Otxarkoagara Bilboko Udalak.

Otxarkoagaren eraikuntza eta “Derribo-Chabolas” operazioa

Instituzioak, kostata izan bazen ere, txabolen ugaritze ikaragarria eteteko neurri eraginkorrak hartzen hasi ziren 60ko hamarkadaren hasieran. Eraginkorrena, dudarik gabe, Otxarkoagako auzunea eraikitzea izan zen. Egitasmoa 1958an abiatu zen eta 1961eko abuztuan bukatu.

Esas 3.675 viviendas subvencionadas, que se levantan en conjunto espléndido en 110 grandes bloques se han otorgado mediante entrega de 20 000 pesetas de cuota de entrada y tendrán unas rentas medias de 400 pesetas, permitiendo la amortización del importe de la vivienda —coste de entre 100.000 y 120.000 pesetas— en el plazo de quince años¹⁵.

Nerbioi-Ibaizabal ibaiaz iparraldera zeuden txabola-auzoetako biztanleak izan ziren Otxarkoagara eraman zituztenak. Estetika hutsera mugatu ziren erabaki hau hartzerakoan; izan ere, auzo horiek ziren hiri barnetik ikusgaien suertatzen zirenak.

Biztanleak Otxarkoagara lekualdatu ostean, txabolak berriz okupatzea sahiestearren, eraispen-plan bat ipini zuen abian udalak. Informe ofizialetan egitasmo horri emandako izena “Derribo-Chabolas” operazioa da, eta orotara 16 auzotako 2.505 familia izan ziren lekualdatuak pisu berrietara.

Hasiera batean, auzokide batzuen aldetik lekualdatzearen aurrean erresistentziak agertuko zirela pentsatzen bazen ere —bereziki txabolaren jabe zirenen artean, % 65 inguru—, azkenean ez zen arazorik egon. Kontrakoa baizik; izan ere, biztanle askoren laguntzari esker (bai altzariak kargatzen lagundu zutelako, bai euren kabuz joan zirelako Otxarkoagara) operazioa uste baino azkarrago gauzatu zen, 1961eko abuztuaren 10ean hasi eta urrian amaitu zen eta.

“Derribo-Chabolas” operazioa


Operazioa apurka-apurka gauzatu zen, nukleo txikienetatik hasita. Abuztuaren 10ean abiatu zen Ingelesen Zelaia izenez ezagutzen zen tokian. Egun horretan, kargu politiko asko gerturatu ziren auzora eta NO-DOKoak ere egon ziren dena filmatzen.

Udalaren hiru kamioi, hiru autobus eta suhiltzaileen lana nahikoa ez zirela ikusita, Zorrotzako Armadaren Komandantziari eskatu zitzaion laguntza hurrengo egunetarako, lanak arindu nahian. Alokatu egin zitzaizkien kamioi gehiago militarrei eta partikular batzuei.

15. *La Gaceta del Norte*, 1961/06/18, kontraportada.



La Gaceta del Norte



La Gaceta del Norte

Txabolista askok jadanik Otxarkoagako pisuko giltza zutenez, udalak bidaia-gastuak ordaintzeko eskaintza egin zien beren kabuz lekualdatzen zirenei. Neurri eraginkorra izan zen, instituzioen lana nabarmenki erraztu zituen.

Irailaren 9an lekualdatzeak bukatutzat eman ziren ofizialki.

Txabolen eraipen-lanak Donostiako armadako 50 kideko zapadore talde baten esku geratu ziren. Lan gogorra izan zen, urriaren hasiera arte luzatu zena.



La Gaceta del Norte. Operazioaren bigarren fasea iragartzen zuen berria.

Lehen fase hau bukatuta, Kastrexana, Irusta eta Ollargan auzoen errolda osatzen hasi ziren udaleko langileak, Otxarkoagan pisu gehiago bukatzen joan ahala, biztanle horiek ere eramateko. 1962ko otsailean ekingo zioten familia horien lekualdatzeari.

Irustaren kasuan, 14 etxe zutik mantendu zituzten, baimen egokia zuten eta. Ollargani dagokionez, auzokide gutxi batzuk lekualdatu zituzten bakarrik, Arrigorriagako jurisdikzioaren menpeko lekua da eta.



Recaldeberri historia y... San Antonio auzoa

Uretamendi

1960ko egunkariak¹⁶ hauxe zioen bere portadan: «Uretamendi: se trasladan las chabolas en volandas. En su terreno van a construir casas, sustituyéndolas». Eta hala izan zen, bizilagunek lekualdatu ziztuzten txabolak oholtzarrez baliatuz, modu horretan pisuak eraikitzeko espazio librea lagaz.



*Recaldeberri aldizkaria.
Uretamendiko txabolak*



Recaldeberri historia y...

16. *La Gaceta del Norte*.



La Gaceta del Norte, 1960/5/22.

Plana 328 etxebizitza eraikitzean zetzan, txabolista-sendi bakoitzeko bana. San Jose Obrero parrokia entitate etxegilea bihurtu zuten eta estatuak *Instituto Nacional de la Vivienda* delakoaren bitartez emandako pisu bakoitzeko 30.000 pta-ko diru-laguntzarekin lanari ekin zioten.

Etxebizitzen banaketak, zozketa bidez egin zenak, hurrengo baldintzak izan zituen: etxebizitzaren sarrera-kuota ordaindu behar zen, bakoitzak bere blokean 250 orduz lan egin behar zuen gutxienez, ondoren hilean 200 pta-ko kuota ordaintzea bi urtez eta 100 pta ondorengo hamairu urteetan. Hala eginez gero, etxebizitzaren jabe bihur zitezkeen txabolistak. Azken etxebizitzen giltzak 1962ko irailean eman ziren.

Ondorengo urteetako balantzea

– Otxarkoagako adaptazioa

Kalkulu ofizialen arabera, 15.000 pertsona eraman ziren Otxarkoagara¹⁷. Auzo berriko populazioak zenbait kezka azalarazi zituen heldu eta gutxira. Alokairua gehiegizkoa zela uste zuten eta protestak egin zituzten, kobratzeko zailtasunak zeuden. Ezinegona nabaria zen etxebizitzak ez zeudelako behar bezala bukatuta, makina bat akats zeuden teilatuetan, horretan, hezetasuna zegoen, etab. Gainera, Otxarkoagara zihoan autobus bakarraren bidaia-txartelaren prezioa gehiegizkoa iruditzen zitzaien.

Auzo berrien bilakaeraren inguruan ikus dezagun II. Garapen Planeko berrikuspenean, etxebizitza-batzordeak egindako balorazioa:

Las barriadas periféricas que se construyen durante este periodo, a pesar de emplazarse próximas al centro urbano, resultan aisladas, desintegradas de la vida urbana. Este aislamiento se intenta compensar con la intensificación de su vida interna, pero las dificultades económicas y el alto precio del suelo impiden que se reserve terreno para esa finalidad o que se construyan los necesarios servicios colectivos. En estas circunstancias, los nuevos barrios (por otra parte en general deficientemente construidos), desvinculados de la ciudad y con escasas posibilidades comunitarias, se convierten, en poco tiempo en auténticas estructuras suburbanas.

17. Gobernu Zibilaren datuak dira. *Gaceta del Nortek* emandako kopurua, aldiz, 18.000 pertsonakoa da.

– Txabolismoaren aztarnak

“Derribo-Chabolas” operazioa gauzatu zen unetik, txabolismoaren inguruko zaintza areagotzeko agindua eman zen. Oro har, oso toki gutxitan berpiztu zen fenomenoa. Alabaina ere, Los Caños (Kañu pasealekua) desagertzeko egindako ahaleginak ez ziren nahikoak izan, Otxarkoaga eraiki ondotik berriro populatu baitzen —askoz ere era leunagoan, noski—.

70eko hamarkadatik ijitoak izan dira biztanle bakarrak. Sarritan, behin-behineko bizileku gisa erabili izan dute eta denboraldi bat eman ostean alde egiten dute. 1983ko uholdeek asko okertu zuten berez oso kaxkarra zen txabola-auzo honen egoera. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko pisuak eskaini zizkien bertako sendiei. Seik onartu zuten proposamena eta Atxurin ezarri zuten euren bizitokia. Integrazioa auzoan nahiko zaila izan zen, egun konpondu gabe dirauten arazo etnikoak sortu ziren eta.

– Biziraun zuten auzoen balantze laburra

Aurreko orrialdeetan aipaturiko operazioan integratu ez ziren auzoek urte luzez iraun zuten zutunik. Jarraian ikusiko dugun legez, askok eraldaketa ikusgarria izan zuten, haien ordez bestelako eraikuntzak agertu baitziren. Beste batzuk, ordea, gaur arte heldu dira nahiko berdintsu.



Peñasal auzoa. *Rekaldeberri en imágenes...*

Pobreziaren eta bizi-baldintzen inguruko 1965. urteko Bilboko Caritasen informe batek dionez:

En los barrios de Peñasal, San Antonio, Monte Caramelo, Masustegi, Camino de Arraiz, Recalde-Betolaza, Ollargan, Irusta, Buya, que son barrios extremos de Bilbao, las construcciones son pequeñas y, aunque no son las clásicas chabolas de lata o cartón embreado a algunas de ellas no les falta mucho para recibir esta denominación. La mayoría son casas de ladrillo, de dos o tres habitaciones, de uno o dos pisos, con tejados de una o dos vertientes, cubiertos de teja plana y con cocina, pero sin servicio de agua (salvo Ollargan). En estos barrios viven aproximadamente unas 15 000 personas.

En cuanto a alcantarillado se refiere, no hay más que un sistema de tuberías bastante rudimentario y construido por los habitantes mismos de los barrios (Arregi 1965).

Auzo asko ziren, biztanle asko oraindik... Etxeak handituz zihoazela ikus daiteke, etxeek jada ez baitzeuzkaten bi gela bakarrik. Halere, barne-ezberdintasun ugari ageri ziren, Caritasen informeak islatu bezala:

Podemos considerar tres clases de chabolismo: las de madera, con falta de higiene total; las de ladrillo, con algo más de higiene, y el chabolismo de medios y de ambiente (Arregi, 1965)

Dena den, txabolismoaren hedapenean eten bat somatzen hasi zen 1965. urterako:

Actualmente esta prohibido hacer chabolas, pero hasta hace cuatro años era corriente establecerse en chabolas propias que levantaban de la noche a la mañana, o de otros parientes, o de alquiler (Arregi, 1965).

Errekaldeberriko txabola-auzoen bilakaeraren inguruan, hauxe dio Soledad Urkijok:

En las zonas más apartadas, como Betolaza o Uretamendi, la mayoría de la población procedían de las chabolas, que desaparecieron hacia el año 60. Toda esta población chabolista no se trasladó a Ocharcoaga, como lo hicieron los de Iturrigorri, en parte porque la iniciativa de los mismos chabolistas resolvió el problema con la construcción de casas sencillas de dos alturas, y en parte, gracias a la iniciativa privada que dio alojamiento a la población dentro del barrio. Con todo, en los sectores del Peñasal, San Antonio e Iturrigorri aún quedan chabolas hoy día, aunque algo mejoradas en sus instalaciones (Urkijo, 1973).

Bilboko Errentapekoen Elkarteak 1968ko udan bere 50. urtemuga ospatzen zuelako aitzakiarekin etxebizitzaren inguruko jardunaldi batzuk antolatu zituen. Txabolismoaren inguruan solastatu ziren, besteak beste. Horra hor J. M. Alonsok horri buruz idatzitakoa:

Pero ¿existe aún el chabolismo? ¿En Bilbao? Sí, principalmente en estos barrios: Recalde, Erandio, Begoña y Deusto. Chabolas que carecen de lo más elemental para habitarlas. *Y se suman por miles.*

Bide batez udalaren jarrera salatzen du Alonsok artikuluan, bere ustetan ez baitu ezer egiten txabolismoa ekiditeko, ez ikusiarena besterik ez. Konponbide bakarra etxebizitzaren eraikuntzan ikusten du, laguntza ofizialak izanik diru-iturri nagusia eta kooperatibak sortzeko erraztasunak emanez.

1985. urtean txabolismo-foku potentzialen azterketa bat egiteko teknikari talde bat kontratatu zuen¹⁸ udalak. Egindako txostenean hurrengo auzo hauek aipatzen ziren: Masustegi, Kobeta, Mintegixueta, Errekaldeberriko San Antonio eta Betolaza, eta Buia nahiz Los Caños (lehen azaldutakoa).

18. Instituto para la Promoción Tecnológica y Económica delakoko kideak.

Ondorioak

Bilbo aldeko aparatu industrialia bultzada berria somatzen hasi zen 50eko hamarkadan eta benetako hazkundea Estabilizazio Planaren eskutik etorriko zen urte gutxitan. Hartara, nekazari-guneetako etorkin-fluxu sendoa eratu zen hirirako norabidean.

Autoritateek ez zuten jakin jende haren etorrera era ordenatuan aurreikusi eta antolatzen, eta ondorioz arazoak sortu ziren. Larrietako bat etxebizitza-eskasiarena izan zen; izan ere, makina bat hiriburutan azaldu ziren azpierretoa, etxebizitza konpartitu eta txabolismoaren fenomenoak.

Industrializazioa izan zen, hortaz, fenomeno horien eragile nagusia. Ez, ordea, bakarra, txabolismoaren orokortzean paper garrantzitsua jokatu baitzuten faktore gehiagok: etxebizitza-politika desegokiak, batik bat. Onartutako espekulazioak, eskasiarekin batera, arazoa larriagotu egin zuen.

Industrializazio-prozesuaren hastapenetatik gertatu bazen ere, dokumentaturik dauden zenbait txabolismo-kasu azaltzen hasi ziren Bilboko zenbait gunetan 20ko hamarkadatik, denak oso modu isolatuan. 1945etik aurrera, zabaltzen hasi eta 50eko hamarkadan zehar erritmo bizian haztera heldu zen. Batez ere, hamarkadaren amaieran bizkortu zen etxolen ugartzea: 1955. urtean 640 txabolista zeuden erroldatuta, 1961ean 15.000tik gora ziren, jada.

Auzo berdinak izan ziren 1955. eta 1961. urteetakoak, beraz, hasiera batean populaturiko auzoak izan ziren hazi zirenak, dentsifikatuz, baina ez ziren eremu berriak hartu.

Sarritan esan ohi denaren kontra, ez ziren izan etorkinak auzo hauetan bizi izandako bakarrak. Bilbotar sendi ugari egon zen ere, batik bat bikote ezkonberriak eta emakumezko bat zutenak familiaburutzat. Askok baliabide ekonomiko urriak izanda eta lantokitik ahalik eta gertuen bizi nahiagaitik mendi-magaletan eraiki zuten euren etxola, beste batzuei jarraiki eta garaiko legediari muzin eginez.

Lexikoaren inguruan eztabaida mamitsua sortu izan zen txabolismoaren urte gogorretan, etxolen jabe askori ez zitzaion laketa euren bizitokia "txabola" izendatzea. Horren ildotik, aipatzekoa da prentsan bereziki nabarmen zaintzen zituztela gai honen inguruko esapideak, "legezkanpoko eraikuntzak" edo "etxetxoak" esanez, kasu.

Instituzioetatik fenomenoaren hedapena eteten saiatu ziren arren, ez zuten lortu. Izan ere, oso dimentsio handiko arazoa dugu, jende kopuru itzela bizi baitzen txaboletan eta "gizatasunagatik" edo apika arazoari aurregiteko indar nahikoa ez izateagatik, ez ikusiarena egin zuten askotan. Txabola-auzoen zabalkunde gorenak 1961. urtean gertatu zen, urte hartan inoiz baino txabola gehiago egon baitzen Bilbon. Orduan, Otxarkoaga eraiki eta zona horietako txabolistak bertako pisuetan sarrarazi zituzten eta haien etxolak eraitsi.

Otxarkoaga lorpen garrantzitsutzat jo daitekeen arren, ahalegin handiagoak behar izan ziren, Asuako egitasmoa esaterako. Hala eta guztiz ere, gaur egun arte biziraun dute garai hartako arrastoek, Masustegi eta Kobeta gisako auzoak lagata. Txabola ohietan bizi dira auzo horietako egungo biztanleak, erabat eraldaturik dauden etxoletan: handitu dituzte, berritu, atondu...

Etxebizitzaren eskasia 60ko hamarkadan zehar desagertuz joan zen arazoa dugu, eraikuntza asko ugaritu zen eta. Batez ere, babesutako promozio pribatua izan zen hazkundearen erantzulea, merkatu-zabalkuntzak eta eskari sendo baten giroak lagunduta.

Urteekin arazo berria sortu da etxebizitzarekin, gehiegizko espekulazioak berorren prezioaren igoera ekarri duelako, gizartearen zati handi bati oinarritzko eskubide hura ukatuz. Oso bestelako izaera hartu du arazo honek urteen harian, hots, 50eko hamarkadan gakoa etxe kopuru urrian baldin bazegoen, denborarekin urritasuna desagertu eta espekulazioa bilakatu da arazoaren iturburu (biztanle kopurua baino etxebizitza gehiago dago, bizileku anitz hutsik egonik).

Bibliografia

- Arregi, L. (1965): "La situación de la vivienda. Monografía nº5", *Cáritas Plan C.C.B. edo Plan de Promoción Social, Asistencia Social y beneficencia de la Iglesia en España*, Madril.
- Bustillo, V. E. (2004): "Vivir de habitación en Bilbao. Un estudio de la disponibilidad de la vivienda durante los años del desarrollo", *Bidebarrieta*, **15**.
- Egiraun, J. eta del Vigo, J. (2000): *Rekaldeberri en imágenes*, BBK-Bizkaiko Gaiak, Bilbo.
- _____ eta _____, (2002): *Rekalde: historia y conflicto*, Beta III Milenio.
- Leonardo, J. J. (1989): *Estructura urbana y diferenciación residencial: el caso de Bilbao*, CIS, Madril.
- _____, (1994) "Bilbao, historia y estructura urbana. Claves sociológicas para una reflexión", *Bilbao. Vida, Paisajes, Símbolos*, Sendoa, Oiartzun.
- Otamendi, J. J eta Perez de la Peña, G. (1999): *Hirigintzaren kartografía Bizkaian (1857-1956)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Perez Agote, A. (1978): "Racionalidad urbana y relaciones sociales. El Gran Bilbao 1945-75", *Saioak*, **3**, Donostia
- Perez, J. A. (2001): *Los años del acero*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (2000): *La ciudad soñada*, BBK-Bizkaiko Gaiak, Bilbo.
- Salazar, J. (1979): "El planeamiento urbanístico y la estructura urbana del Gran Bilbao", *Comun*, **2**, Faustino Orbeagoz Fundazioa, Bilbo.
- Urkijo Rentería, S. (1973): *Sociología y urbanismo*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ustarroz, P. L. (1976): *La política de vivienda en Bilbao de 1939 a 1970. Análisis del Gran Bilbao*, [lizentziaturako tesina, argitaratu gabea], Bilbo.

